



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**UPV/EHUko IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN  
DEIALDIA  
(2018)**

## ATARIKOA

UPV/EHUren eginkizun funtsezkoa da ikerkuntza, ikerkuntza baita jakintza sortzeko tresna, irakaskuntzaren oinarria, komunitatearen aurrerapenerako baliabidea eta jakintza gizartera transferitzeko euskarria. Horrela, bada, unibertsitateak bere egiten du helburu garrantzitsuenetako bat bezala ikerketa zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoa garatzea, eta ikertzaileak prestatzea. Era berean, ikertaldeak sortu eta garatzea sustatzen du, eta kalitatea, diziplinartekotasuna eta nazioarteko bikaintasun sareetan txertatzea bultzatzen ditu, bai eta beste erakunde edo enpresa batzuekin talde mistoak eratzea ere.

Laguntza hauen bitartez, areago, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea osatzen duten gainerako eragileekiko lankidetzeta eta unibertsitateko ikertaldeen indarra ere hobetu nahi dira, deialdi lehiakorragoetan parte har dezaten; hala nola, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako planaren programa ezberdinak, deialdi estatalak edo Europar Batasunaren deialdi ezberdinak. Oro har, UPV/EHUren ikertaldeak aldi baterako besterik ez dira sortzen, epe ertainera, ikertalde bihurtzeko unitate osatu berriak baitira, horretarako euskal gobernuaren kasuan kasuko deialdia baliatuko dutelarik.

Xede honetarako, guztira, 800.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren "Ikerkuntza sustatu" ekintzan, 1.1. lerroan, "Ikerketa proiektuak, taldeak eta ekipamendu zientifikoa" programa kontratuan ezarritako aurrekontu kredituaren kargura. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izateen arabera.

Horretara, Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta gobernu kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondorenezahaztukodiren baldintzetan.

### 1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua ikerketa jarduerak erraztea eta bultzatzea da, bai eta UPV/EHUko ikertaldeek egindako ikerkuntzaren kalitate zientifikoa hobetzea ere, bost jakintza arloetan (zientzia, ingeniariaritzeta eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte zientziak eta zientzia juridikoak, eta artea eta giza zientziak) ikerketak egiteko laguntza finantzarioak emanez.

Ikerkuntzarako ekintzen bidez, erdietsi nahi diren oinarrizko helburuak dira:

- a. Funtsezko ikerkuntza sustatu, jakintzaren maila handitzeko, bere horretan ondasuntzat jo nahi baita.
- b. Ikerketa estrategikoa sustatu, berrikuntza bultzatzeko, lehiakortasuna eta gizarte ongizatea areagotzeko elementua den aldetik.
- c. Unibertsitateak enpresekin eta gainerako gizarte-eragileekin duen lankidetzeta ikerketa sustatu.

Goian adierazitako hitzaurrearen arabera, deialdi honen helburua bikaintasunezko ikerketa lanean arituko diren talde egonkorak sortzea da, gerora euskal gobernuak ikertaldeetarako dei egiten duen deialdian lehia daitezen.

Deialdi honek, hortaz, ikertalde bakoitzari emandako laguntza ekonomikoa kuantifikatu eta esleitzea du helburu, zeinek proposatzen duen hirurtekorako jardun programa burutzeko eta, behin osatuta eta aldeko balioespena lortuz gero, UPV/EHUk aintzat hartutako ikertalde bihurtzeko.

### 2. OINARRIA. IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

- 2.1. Ikertaldeak egiaztatu beharko du ikerlarien arteko harremana egonkorra dela; nolabaiteko koherentzia erakutsiz eta proiektu eta argitalpen komunean parte hartuz. Ikertaldeak beste gune edo erakunderen bateko ikerlariekin harremanak izan eta proiektu eta argitalpenak horiekin batera lantzen baditu, beste gune edo erakundeetako

ikerlariak ez dira ikertaldeko kideztat hartuko deialdi honetan parte hartzeko helburuetarako.

- 2.2. Talde eskatzaileak egiaztatu beharko du azken bost urteetan finantzaketa jarraitua jaso duela. Azken bost urte hauetan zehar jasotako finantzaketa osoaren, gutxien-gutxienez, %25a UPV/EHUtik kanpoko iturburuetatik etorritako finantzaketari egokituko zaio. Unibertsitatekoak ez diren beste ikertzaile batzuekin batera partekatutako proiektuei dagokienez, hauen ekarpena proportzionaltasunaz konputatuko da taldean diren ikertzaileen kopuruarekiko. Finantzaketa da ikerketa jarduerak edo ikertzaileak kontratatzeke edozein motatako laguntza, lehiaketa bidezko deialdietan lortutakoak, bai eta eskatzaileek ikerketa jarduna egitea eragingo lukeen beste edozein laguntza ekonomikoa ere.

Ikertalde sortu berriek edo osatzekotan direnek ere laguntza eskatu ahal izango dute, baldin eta bere sail edo arlo tematikoan ikertalde finko aitorturik ez badago edo ikerkuntza tradizio baxuko arloetakoak badira, nahiz eta aurreko paragrafoan adierazitako baldintza beteko lukeen finantzaketarik lortu ez duten. Egoera honetan egon eta laguntza lortu nahi duten ikertaldeek idazkia bidali beharko diote IAera, ikertaldea nortzuek osatuko duten eta zeintzuk ikerketa ildo proposatuko dituen.

Hala eskatuko balitzaio, eskaria koordinatuko duen arduradunak behar besteko azalpen eta informazio agertu beharko du aurreko baldintza hauek egiaztatzeke.

2.3. Gutxieneko taldea hiru ikertzaile doktorek osatu beharko dute, horietako bi 3.1.a oinarrian jasotako kidegoetakoak izango dira eta horietako batek taldeko ikertzaile nagusi moduan eskaria koordinatzeko ardura izango du. Hiru ikertzaileok UPV/EHUrekiko kontratua edo lotura mantendu beharko dute laguntzak hartuko duen epearen amaierara arte.

- 2.4. Taldeek izan ahal izango dute ikertzaile nagusi kide bat, lehenengoa egon ez eta ikertzaile nagusi arituko dena, beti ere 3.1.a oinarrian eskaturiko baldintzak beteta.

### 3. OINARRIA. IKERTALDEAK OSATZEN DITUZTEN PERTSONEN BALDINTZAK

3.1. Honako kide hauek osatuko ikertaldeak lehiatuko ahal dira laguntza hauetan:

- a. UPV/EHUekin lotutako lan kontratudun edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsonala (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUen Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsonala, Ikerbasque programari atxikitako pertsonala, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsonal doktorea eta irakasle atxikiak edo lehenago izandako bitarteko lan kontratudunak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero.
- b. Pertsonal ez iraunkorra, eskaria egiteko unean, UPV/EHUrekiko lotura edo kontratua duena.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira pertsonal ez iraunkortzat:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten ikertzaileak.  
Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak egon behar du eskariaren barruan.
- ii. UPV/EHUko deialdietako doktorego ondoko ikertzaileak eta Eusko Jaurlaritzakoak.
- c. Ikerkuntzarako lankide akademikoa, unibertsitatearen arautegian ezarritako prozedurekin bat etorrira.

### 3.2. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte ikertzaile nagusiek:

- i. Doktoreaizatea.
- ii. Gutxien dela, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak (CNEAI) azken sei urteetan emandako ikerketa seiurteko bat edo pareko beste agentzia batek egindako ebaluazio positiboa (seiurteko aktibo baliokidea).

Salbuespenez, Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikerkuntza jardueraren ebaluazioa gestionatuko du xede horretarako kontratatutako agentzia baten bidez, norbere kontratuaren izaerarengatik CNEAIren seiurtekoak eskuratzeko urteroko deialdira aurkezterik ez duten zuzendariak parte hartzeko aukera izan dezaten errazte aldera.

- iii. Arduraldi osoa izatea. Salbuespenez, arduraldi osokoa izateko baldintza bazterrean utzi ahal da IGBBren txosten arrazoitua tartean dela, ikertzailearen garrantzia zientifikoari begiraturik.
- iv. Gutxien dela, ikertzaile nagusietako batek enplegu lotura izan beharko du UPV/EHUrekin eta berau izango da UPV/EHUko izatea betebeharraren moduan ezartzen duten funtzioetarako arduraduna (sinatu UPV/EHUren izenean, unitate organikoak erabili eta abar).

### 3.3. Inorkezin izango du:

- Aldi berean deialdi honetako ikertalde batean baino gehiagotan parte hartu. Aldi berean parte hartzeak bi ikertaldeak utziko ditu kanpoan.
- UPV/EHUren 2015eko eta 2016ko deialdietako "Taldeetarako diru laguntzak" modalitateko finantziatorik daukan talde batean parte hartu.
- Euskal gobernuaren 2015eko deialdiko finantzaketa duten euskal unibertsitate sistemako ikertaldeko kidea izan.
- UPV/EHUren finantzaketa, "UPV/EHUren ikerkuntzarako laguntzen 2016ko deialdiko II. modalitatean lortu eta 2018ko abenduaren 31an aktibo dagoen proiektu bateko kide izan.
- Ikerketa proiektu aktibo batean baja eskatu, aurreko puntuetan aipatutako ikerkuntza laguntzeko deialdietarako eskariak aurkezteko epean, deialdi honetan parte hartzeko asmoz.

### 3.4. Ezin izango dituzte diru laguntza hauek eskatu egoera hauetako batean dauden pertsonak:

- a. Epai irmoz kondenatuta daudenek diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- b. Diru laguntzaren bat itzultzeraz behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenek.
- c. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenek, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

### 3.5. Eskaera ez onartutzat emango da ikerlari nagusiak aurreko baldintzak betetzen ez baldin baditu.

### 3.6. Aurreko baldintzak betetzen ez dituen ikertzaile nagusi kideak edo ikertaldeko kideak eskaeratik kanpo geratuko da.

## 4. OINARRIA. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

4.1. Laguntza hauen helburua da ikertalde oinarriko funtzionamenduaren gastuak estaltzea, hau guztia UPV/EHUtik kanpoko erakundeetatik ikerketa jarduna burutzeko lortuko duten finantzaketaren osagarri.

4.2. Subentzioak hiru urtetan programatu eta Horizon 2020 europar programan deskribaturiko erronkekin bat datorren ikerketa jardunerako izango dira, garatu beharreko

ikerkuntza ildoak eta planteatu beharreko premiak asebetetzeko subentzioen plana bertan ageriz. Laguntzen kopuru eta zenbatekoak IGBBren proposamenarekin bat etorrira zehaztuko dira zenbat eskari egin diren, aurkeztutako aurrekontuak eta ikertalde balioketaren ikusita.

## 5. OINARRIA. LAGUNTZEN IZAERA

5.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Pertsonal ikertzailea kontratatzeko laguntzak. Kontratuak egiteko, irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko UPV/EHUk duen araubidea aplikatuko da.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez bakarrik erosi ahal izango dira. Horrela egin ezean, hau da, erosketa egiteko ez bazaio UPV/EHUk ezarritako prozedurari jarraitu, taldeari laguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio, hain zuzen ere, erosketa horren zenbatekoa.
- c. Material suntsikorra.
- d. Bidaiak eta dietak, barne hartuta edozein motatako joan-etorrietako gastuak, biltzarretako parte hartzeak (eta izen-ematearen gastuak) eta beste zentro batzuetan egindako egonaldi laburrak. Hala ere, egonaldietarako laguntza jasotzeko, egiaztatu egin beharko da ikertzaileak eskaria egin duela mugikortasuneko norgehiagokako berriazko deialdietan, eta laguntza modu agerian ezeztatu zaiola.
- e. Azpikontratazio gastuak deialdian diruz laguntzen diren ekintzetarako. Hau, gehienez, emandakoaren %25a ahal izango da, hala ere, behar bezala justifikatutako kasuetan eta aurretiaz motibatutako eskaera aurkeztuta zenbateko hori gehitu ahal izango da.
- f. Beste gastu batzuk, aurreko atalean zehaztutako gastuetan sartzen ez direnak, baina behar bezala egiaztatuta daudenak. Atal honetan sartu ahal izango dira: ekipamendu zientifikoa konpontzeko eta egoera onean izateko egindako gastuak, UPV/EHUren Zerbitzu Nagusiek egindako mantentze kontratuetan jasota ez badaude.

Egin beharreko gastua ez bada aurreko atalean zehaztutakoa, baimena eskatu ahal izango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

5.2. Azpiegitura zientifikoa ikertaldeari emandako laguntzaren amaiera data baino sei hilabete lehenagora arte eros daiteke. Epe hori igarota, atal horretarako esleitutako laguntza bereganatu egingo du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

## 6. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Ikertaldeek bide telematikoz bete beharko dute eskaria osatzeko formulazioa honako aplikazio hau erabiliz:

<http://www.ikerketa-taldeak.net>

Horretarako, ikertaldeko ikertzaile nagusiak alta eskatu beharko du erabiltzaile gisa eta aipatutako aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete beharko ditu. Euskal gobernuaren euskal unibertsitate sistemako ikertalde baten jarduna sustatzeko laguntzen deialdi baten egiaztatutako ikertalde baten kasuan, ikertzaile nagusiak berreskuratu ahal izango du eskarian emandako informazioa.

6.2. Ikertzaile nagusiek zein bere ikertaldeari buruzko informazioa jarriko du aplikazioan.

a) Eskabidearen datuak:

- Ikertzaile nagusien datuak.
- Ikertaldearen datu orokorrak eta osaera.
- Ikertaldeak 2013tik laguntza eskatzeko datara arte egindako jardueren zientifikoari buruzko memoria: ekoizpen zientifikoa, hezkuntza gaitasuna, ikerketarako lortutako finantza iturriak eta jakintza transferentziarako jarduerak.

- Jarduera programa, helburuak, lan plana, laguntzaren burutze epe zabalena (2019-2021) ezinbestean hartu beharko duena, honetarako kronograma eta mugarri nagusiak. Ikertaldearen helburuak, ekoizpen zientifikoari, prestakuntzari, transferentziari eta finantza iturriei dagokienez, kuantifikatu beharko dira, laguntzaren helburuko epe osoan zehar erdietsi beharreko adierazleak erabiliz.
- 2019-2021 eperako eskatzen den aurrekontua. Bosgarren oinarrian deskribatu bezala, diruz lagun daitezkeen kontzeptuetan eskatutako zenbatekoak zehaztu beharko dira. Gainera, zenbateko hauek justifikatu beharko dira zein bere helburu zehatza xehe xehe azalduz.

b) Ikertzaile nagusiaren curriculum, unibertsitate edo ikerkuntza gaietako eskumenik duen edozein administrazioren formatu arautuan aurkeztu beharrekoa. Dokumentazio hau pdf formatuan aurkeztu beharko da aplikazioan.

Ikertaldeko gainerako kideen ekarpen zientifiko nagusiak ikertaldearen jarduera zientifikoaren memorian jasoko dira, eskaria egiteko inprimakian. Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikertaldeko edozein kideri eskatu ahal izango dio informazio gehigarria.

c) Ebaluazio agentzia kreditatu edo parekoek emandako ebaluazio positiboa (seiurteko aktibobaliokidea), irakasle ez iraunkorren zatia.

6.3. Behin eskaria oso-osorik bete eta gero eta datu guztien agerpena amaituta, eskaria inprimatu beharko da eta ikertaldeko ikertzaile nagusiek eta ikertaldeko kide guztiek sinatu, 9. oinarrian adierazi bezala.

## 7. OINARRIA. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Deialdiaren helburuarekin bat etorrira, ebaluazio prozesuak jarraian adierazitako irizpideak bete beharko ditu.

Irizpide bakoitzak zehaztuta dauka ebaluazio osoarekiko duen pisua. Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekarpenen kalitate adierazleak aurkeztu beharko ditu (aldizkariak bere ikerketa eremuan duen inpaktua, kokapena, kuartila, eta abar).

7.1. Ikertaldearen irizpide eta adierazleak.

1. irizpidea: Ikerketa zientifikoaren kalitatea. Ekoizpen zientifikoaren eta produktibitatearen bikaintasuna balioetsiko da ikertaldearen tamaina eta lortutako baliabideen arabera. Kontutan hartuko dira argitalpenak (liburuak, liburu kapituluak, berrikusketak, ebaluaziodun argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak), ponentzia zientifikoak edo beste edozein adierazle, norberaren arlo zientifikoan garrantzitsua bada. Argitalpenak balioesteko arlo zientifiko bakoitzean diren zerrenda eta ranking zientifikoak eta aipuetarako adierazleak erabiliko dira, ebaluatzerakoan arlo bakoitzaren zer-nolakoak kontutan izan behar direlarik.

Irizpide honek %35aren pisua izango du puntuazio osoan.

2. irizpidea: Ikertaldearen gaitasuna ikertzaileak prestatzeko. Doktorego aurreko eta doktorego ondoko kontratatuen kopurua, zenbat tesi eta nazioarteko tesi, graduondoko eta master egin diren balioetsiko da, ikertaldeko kideek zuzenduta, edo ikertaldearen ikerketa ildoetara loturik sustatutako zenbat doktorego, bai eta bestelako ekintzak ere, prestakuntzaren arloan.

Irizpide honek %35aren pisua izango du puntuazio osoan.

3. irizpidea: Finantzaketa eta jakintzaren transferentzia. Ikerketa proiektuetarako deialdi lehiakorretan lortutako finantzaketa eta lortutako zenbatekoa balioetsiko dira, bai eta sare tematikoetan eta ekintza integratuetan parte hartuz ere; kontutan hartuz, bereziki, proiektuen lidergoa. Ikertaldearen ikerketa emaitzak ere balioetsiko dira patenteen eskaerekin eta erabiltzeko ereduarekin neurtuta, bai eta ikerketaren emaitzarekin lotutako spinoff enpresen sorrerarekin ere. Irizpide honen atala da patenteen ustiapen maila. Azkenik, jakintzaren transferentzia helburu, kontutan hartuko dira administrazio publiko edo

enprekin sinatutako ikerkuntzarako edo jakintzaren transferentziarako kontratu edo hitzarmenen bidez egindako ekintzak, ikerkuntzaren gestionatzeko unibertsitate, institutu, ikerkuntza eta bestelako gestio bulegoetan tramitatuta. Ez dira atal honetan konputatuko, zeinek bere arloan jakintzaren hobetze nabarmenik ez lekarketen aholkugintzak, arkitektura edo ingeniartzako oinarrizko proiektuak eta beste.

Irizpide honek %20aren pisua izango du puntuazio osoan.

4. irizpidea: Lanaren helburuak eta plana. Ikertaldearen helburuak hiru urteren tartean balioetsiko dira: hauen definizioan, kalitate zientifikoa, berritzailetasuna eta proposatutako lan planarekiko koherentzia balioetsiko dira. Lan plana: lan planaren definizioa eta logika balioztatuko dira. Laguntza gestionatzeko planarekiko hautabidezko proposamena, espero gabeko emaitzak eta ustekabeak gerta litezkeen bestelako egoerak gertatuta. Era berean, balioetsiko da eskatutako aurrekontua noraino den egoki proposatutako helburuekiko eta lortu nahi diren emaitzek norainoko eragin eta inpaktua izango duten arlo sozioekonomikoan eta teknologikoan.

Irizpide honek %20aren pisua izango du puntuazio osoan.

5. irizpidea: ikertaldearen kudeaketa proposamenaren ebaluazioa. Ikertaldearen osaera, egitura, diziplinartekotasuna eta proposatutako helburuekiko barne koherentzia eta ikertaldearen barruko generoa orekatzeko proiektatutako ekintzak baloratuko dira. Halaber, emaitzen hedapen zientifikoa, taldearen ikerketa jardueraren komunikazio, hedapen edo didaktika ekintzen edo programaren argitan.

Irizpide honek %10aren pisua izango du puntuazio osoan.

## **8. OINARRIA. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA**

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 28ra artekoa izango da.

## **9. OINARRIA. ESKAEREN FORMALIZAZIOA**

9.1. Eskariak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordetzari zuzendu behar zaizkio eta 6.3 oinarrian adierazitako inprimakia erabiliko da. Eskariak UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Bizkaiko Campusa) edo Gipuzkoako edo Arabako campusetakoan edo ikastegietakoan. Era berean, eskaerak aurkeztu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako beste dozein bidetatik.

9.2. Ikertzaileak agiriak UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetako batean edo ingelesez aurkez ditzake.

Ikerketaren arloko errektoreordetzak Euskararen arloko Errektoreordetzari aginduko dio euskaraz agertutako eskarien itzultzeko. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoz helaraziko zaio ikertzaile nagusiari, eskariak adierazitako helbide elektronikoaren bidez. Bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestioak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da ikertzaile nagusia ados dagoela itzulpenarekin.

## **10. OINARRIA. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOAK**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzaren bidez, kudeatuko ditu deialdi honetan zehaztutako laguntzak.

## **11. OINARRIA. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA**

### **Ikertzaile nagusiarekiko komunikazioa:**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestio Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak. Tramite hau egiteko, hamar lanegunen epea izango du, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero kontatzen hasita.

Epe hau amaitu eta gero, Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikertzaile nagusiei jakinaraziko die azterketaren emaitzaren berri. Aurkeztutako dokumentazioa osorik ez balego edo zuzen litezkeen errakuntzak baleuzka, Ikerketaren arloko errektoreordetzak eskatuko dio ikertzaile nagusiari hamar lanegunen epea eskaria osatu edo zuzen dezan.

- Antzemango balitz eskarian jarri beharreko informaziorik falta dela eta beharrezkoa dela gerora egin beharreko balioespena egin ahal izateko, posta elektronikoen bidez jakinaraziko zaio ikertzaile nagusiari hamar lanegunen epean kasuan kasuko informazioa eman dezan. Eskatutako informazio gehigarria Ikerketaren arloko errektoreordetzari igorriko zaio, eskaria egiteko baliatutako aplikazio informatikoa erabili ez eta [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbide elektronikoiari bidalita.
- Gehitutako datuak zuzenak ez direla antzeman ez gero, Ikerketaren arloko errektoreordetzak ofizioz aldatuko du eskaria.

Geroago, eskarien okerrak zuzentzeko prozesua amaitu eta gero, ikertzaile nagusiak azken txostena eskuratu ahal izango du aplikazioaren bidez, non jasoko baitira ikertaldeak kreditatutako merezimendu guztiak, eskarien inguruan egin beharreko ebaluazioaren oinarri izango baitira.

### **Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda:**

Emandako dokumentazioa zuzendu eta gero, Ikerketaren errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da eskari onartu eta baztertuen zerrenda behin-behinekoa. Zerrenda honetan zehaztuko dira onetsitako eskariak eta ezetsitakoak, baldintzak ez betetzeagatik. Ikertzaile nagusiek hamar lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioa aurkezteko. Alegazioak erregistroaren bidez aurkeztu beharko dira paperean.

### **Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda:**

Aurkeztutako alegazioak berrikusi eta gero, behin betiko onartu eta baztertutako zerrenda argitaratuko da Ikerketaren arloko errektoreordetzaren webgunean.

### **Ebaluazio fasea**

Zazpigarren oinarrian deskribatu diren ebaluazio irizpideen balioespena Ikerkuntzarako Estatu Agentzia (lehengo ANEP), Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatalaren bidez egingo da, ikertzaile nagusiak eskariaren inprimakian adierazitako arlo tematikoa ebaluatzeko 25 arlo tematikoetako bakoitzari loturik. Tramite hau bi hilabetetan luzatuko da.

Ebaluazio txostenak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari (IGBB) bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen-proposamena aurkeztuko dio Ikerkuntzaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

### **Behin-behineko ebazpena**

IGBB-k behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAEn webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskaria egiteko baliatutako aplikazioaren bidez eskuratu ahal izango dute ebaluazio txostena.

Ikertzaile nagusiek 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegazio espresik jaso ezear, proposamenak onartuzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

### **Behin betiko erabakia:**

Epea hau iraganik, IAE-k aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBB-ri, bertan azter daitezzen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Oneste zein ezesteko behin betiko erabakia IAEn webgunean argitaratuko da eta banakako ebazpena bidaliko zaie eskatzaileei.



**Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak:**

Banakako erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1. Lehenik eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa jar dakiok Ikerketaren arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena eman eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia, Administrazio Publikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legeak 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

**12. OINARRIA. LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK**

Esleitutako laguntzen kasuan, deialdiaren ebazpena argitara eman eta gero, ikertaldeko ikertzaile nagusiak deialdiaren ebazteko proposamenean jasotzen den finantzaketa baldintzak onartzeko dokumentua sinatu beharko du, bai eta eskatutako dokumentazioa okerrak zuzentzeko epearen barruan emana izatea ere; ikerkuntzaren gestiorako zuzendaritzak emandako zenbatekoa eman dezan.

**13. OINARRIA. JARRAIPENA**

13.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak diru laguntza jaso duten eskaerei jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

13.2. **Urteko txostena.** Finantzaketarik lortuko duten ikertaldeek, hurrengo ikasturteko lehenengo hiruhilekoa amaitu baino lehen, ekoizpen zientifikoaren urteko datuak eguneratu beharko dituzte <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioan.

13.3. **Amaierako txostena.** Jarduerak bukatu eta hurrengo hiruhilekoan, azken txostena egin beharko da <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioaren bidez lortutako emaitzak jasoz; ikertzaile nagusiak sinatu beharko du eta kasuan kasuko sail edo institutuko zuzendariak ontzat eman.

13.4. **Amaierako ebaluazioa.** Azken txostena aurkeztu ondoren, emaitzen ebaluazioa egingo da. Ebaluaziorako irizpide izango dira:

- a. Ikerketan lortutako emaitzek eragindako ekarpenak.
- b. Kanpoko finantzazioaren eta UPV/EHUko finantzazioaren arteko ratioa, jarduera plana bete den aldiaren.
- c. Azken bost urteetan taldean prestatutako doktore kopurua.

13.5. Zerbitzu Nagusien bidez egin ez diren gastuen kasuan, jatorrizko faktura gorde beharko da ikertaldeko ikertzaile nagusiari dagokion sailean edo institutuan, eta eskuragarri izan beharko da deialdi honen kargura emandako laguntzen inguruan honako organoek, beren eskumenen babesean, egin ditzaketen egiaztapenetarako: Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne kontrolerako zerbitzuak, kontrol ekonomikoko bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

Ez da inola ere fotokopiarik onartuko, jatorrizko dokumentuak galdu direlakoan.

13.6. Ikertaldearen gastutzat hartuko diren gastu bakarrak izango dira 4. oinarrian finantziatorako zehaztutako epearen barruan egindakoak, hau da: epe horren barruan benetan ere gauzatutako erosketa, bidaia, lan eta abarrek eragindakoak.

**14. OINARRIA. EMAITZEN BERRIEMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA**

14.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak),

UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

14.2. Ikertzaileak zein erakundeetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantziazioa eman duten erakundeen zerrenda.

14.3. Ikertaldearen jardueren bidez lortutako emaitzak jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko tituluren baten bidez babestuta egon badaitezke, UPV/EHUKo Jabetza Intelektual eta Industrialaren Erregimenari buruzko Arautegia bete beharko da.

14.4. Ahal den bezain pronto, baina inola ere, argitalpenaren data ofizialetik hamabi hil iragan eta gero, argitara eman beharko da ADDI erakunde gordailuan ikertaldearen ikerketaren emaitza izan eta ikerkuntza argitalpen seriatu edo aldizkakoetan argitaratzeko onartu diren lan eta edukien azken bertsioaren bertsio digital bat. Nolanahi ere, gomendatzen da ADDIn argitaratzea ikertaldearen ondoriozko edozein emaitza.

## 15. OINARRIA. LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA

15.1. Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetariko bat edo beste aldatuko balitz, betiere deialdiaren helburua bete egin dela ziurtatuta, edota beste erakunde publiko edo pribaturen batek bestelako subentziorik edo laguntzarik emango balio taldeari, horrek laguntzak esleitzeko erabakia aldatzea eta kasuan kasuko kitapena egitea ekar lezake.

15.2. Kasu horretan, ebazpena abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. artikuluan (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa), Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra araututa, zehaztutako administrazio prozedurari jarraituz burutuko da, IGBBk proposatuta edo txostena eginda.

15.3. Ondorio horietarako, ulertuko da laguntza emateko oinarri izandako baldintzak aldatu egin direla, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Ikertaldeak uko egitea bere jarduerari, talde barruko lankidetzak harremanak bertan behera uztea edo egiatan apurtzea, ikertzaile nagusia UPV/EHUKoa ez den beste erakunde batera joatea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joatea, eta horren eraginez taldearen zuzendaritza edo aurreikusitako emaitzen lorpena arriskuan egotea.
- b. Ikertaldeak egindako jarduerak bat ez etortzea proposatutako helburu eta epeekin, horretarako Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren baimenik eduki gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian ez betetzea.
- d. Eskarera datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- e. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

## 16. OINARRIA. TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

16.1. Taldean aldaketarik egin nahi izanez gero, eskaria egin behar zaio Ikerketaren arloko errektoreordeari, aldaketa onar edo ezeztatu dezan.

Laguntza eman eta 18 hilabete igaro arte ez da onartuko inork ikertaldea uztea, ezinbestean ez bada.

Aldaketa hori eskatuko balitz, Ikerketaren arloko errektoreordeak IGBBri helaraziko dio eskaria, txostena eman dezan berori onartu edo ezetsi beharri buruz eta erabaki proposamena Ikerketaren arloko errektoreordeari jakinaraz diezaion.

Ikertzaile nagusiak jakinarazi beharko dio IAERI, laguntzak dirauen bitartean, ikertaldeko zeintzuek kide amaitzen duten UPV/EHUrekiko lotura.

16.2. Taldean egindako aldaketak -kide berrien altak edo bajak- Ikerketaren arloko errektoreordeak baimena ematen duen unetik aurre izango ditu ondorioak.

16.3. Taldeko kide kopurua gutxitzearen ondorioz gerta daiteke finantziazioa eguneratzea edo taldea bertan behera geratzea.

## 17. OINARRIA. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko araei.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

## 18. OINARRIA. JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK

18.1. Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Deklarazioa, 2004).
- Indarreko arauak bete behar dira: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 EDa, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Datu Pertsonalei buruzko 15/199 Lege; eta UPV/EHUko arautegia, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 2008koa.
- IIET/GIEB-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena lortu, alde aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).

18.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimintatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, alde aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAA argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

18.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuhurtasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 664/1997 ED; agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 665/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED).

- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, aldezturik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

18.4.18.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da betetzea 45/2003 legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun araukezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan behar da: 1716/2011 errege dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (2011ko abenduaren 2ko EBO, 290. zk.)

18.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharkalan egin ere.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsioa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikulua erekin bat etorruta.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2018ko martxoaren 15ean.

José Luis Martín  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrector de Investigación